

## *Kafe tristearen balada*

---

Herria bera eskasa da; ezer askorik ez dago han, soilik kotoi fabrika, langileak bizi diren bi gelako etxeak, mertxikondo bakar batzuk, eliza bat koloretako bi leihorekin eta kale nagusi ziztrin bat ehun yarda besterik ez dena. Larunbatetan inguruko etxaldeetako maizterrak etortzen dira eguna tratuan eta berriketan pasatzera. Beste gainerakoan, herria bakartia da, tristea, munduko beste leku guztietatik urrun eta aparte dagoen tokia balitz bezala. Society City da tren geltokirik hurbilena, eta Greyhound eta White Bus autobus lineak herritik hiru miliara dagoen Forks Fallseko errepidetik pasatzen dira. Neguak motzak eta gordinak dira hemen, udak zuritasun dirdiratsukoak eta kiskalgarriak.

Abuztuko arratsalde batez kale nagusian barrena bazoaz, ez dago han zereginik. Eraikinik handiena, herriaren erdi-erdian, oholez itsututa dago erabat, eta hainbeste makurtzen da eskuinaldera non erortzeko zorian dirudien. Oso zaharra da etxea. Hondatu itxura arraro bat du, oso harrigarria egiten dena bat-batean konturatzen zaren arte noizbait, aspaldi, aurreko portxearen eskuineko aldea pintatu egin zutela, eta hormaren zati bat ere bai; baina bukatu gabe utzi zuten lana eta etxearen alde bat ilunagoa eta narrasagoa da bestea baino. Etxeak guztiz abandonatua dirudi. Hala ere, bigarren bizitzan bada leiho bat itsutu gabea; batzuetan arratsaldeko azken orduan, berorik handiengan, esku batek astiro kontraleihoazabaldu eta aurpegi bat kalera begira geratzen da. Ametsetan azaltzen diren aurpegi lauso ikaragarri horiek bezalakoa da: sexuga-bea eta zuria, bi begi grisak barrurantz oker-okereginak dituen, atsekabezko begirada luze eta sekretua trukutzen ari balira bezala.

Aurpegia ordubetez-edo luzatzen da leihoan; gero kontraleihoak itxi egiten dira berriro, eta ziurrena da beste arimarik ez azaltzea kale osoan. Abuztuko arratsalde horietan, zure lanaldia amaituta, ez dago ezertxo ere egiteko; ia hobe zenuke Forks Fallseko errepi-dera jotzea, preso-kateari entzutera.

Hala ere, herri honetan bertan kafe bat egon zen behin. Eta itsututako etxe zahar hau beste guztiak ez bezalakoa izan zen milia askoko ingurumarian. Mahaiak egoten ziren oihalekin eta pape-rezko ezpainzapiekin, koloretako zintak haizegailu elektrikoetatik zintzilik, bilkura handiak larunbat gauetan. Miss Amelia Evans zen jabea. Baina etxearen arrakasta eta alaitasuna Cousin Lymon<sup>1</sup> izeneko txalkor bati zor zitzaion batez ere. Beste pertsona batek ere izan zuen partea kafe honen historian: Miss Ameliaren senar ohiak. Pertsonaia ikaragarri bat, presondegian bolada luzea egin eta gero herrira itzuli, hondamendia eragin, eta atzera bere bi-detik jarraitu zuena. Kafea itxita dago harrezkero, baina jendeak gogoan du oraindik.

\*\*\*

Etxea ez zen beti kafe bat izan. Bere aitagandik heredatu zuen Miss Ameliak eraikina, eta orduan denda bat zen, pentsua, gua-noa, arto-irina, tabakoa eta antzeko produktu oinarrizkoak saltzen zituen. Aberatsa zen Miss Amelia. Dendaz gain destilategi bat ere bazeukan herritik hiru miliara, zingiran, eta konderriko likorerik onena egiten zuen. Emakume beltzaran, luze bat zen, gizonezko baten hezur eta muskuluekin. Ilea motz-motz eta kopetatik atzerantz orraztuta eramaten zuen, eta eguzkiak belztutako bere aurpegiak halako tentsio bat, zimeltasun bat zuen. Agian ederra izango zen baldin eta, orduan ere, begi-okar samarra izan ez balitz. Zenbaitek gogo onez gorteiatuko zukeen, baina Miss Ameliari bost axola zitzaion gizonezkoen maitasuna, eta pertsona bakartia zen. Haren ezkonaldia konderri honetan ezagututako beste guztiak ez bezalakoa izan zen: hamar egun besterik iraun ez zuen ezkontza

---

<sup>1</sup> *Cousin* "lehengusua" da ingelesez. (Itzultzailearen oharra)

arraro eta arriskutsua, herri osoa galdezka eta txundituta utzi zuena. Ezkontza bitxi horregatik izan ezik, Miss Amelia bakarrik bizi izan zen beti. Sarritan zingirako bere estalpe hartan ematen zuen gau osoa, galtza petodunak eta gomazko botak soinean, destilategiko su motela zaintzen isil-isilik.

Eskuz egin daitezkeen gauza guztiakin aurrera egiten zuen Miss Ameliak. Txerri barrukiak eta saltxitxak saltzen zituen aldameneko herrian. Udazkeneko egun ederretan basartoa ehotzen zuen, eta bere upeletako ziropa urre kolore ilunekoa eta zapore finekoa zen. Bi astetan altxatu zuen dendaren atzeko adreiluzko komuna eta trebea zen zurgintzan. Jendearekin bakarrik sentitzen zen Miss Amelia larri. Jendea, txoro samarra ez bada, edo oso gaixo dagoena, ezin da eskuetan hartu eta gauetik goizera baliotsuago edo probetxugarriago bihurtarazi. Horregatik, Miss Ameliak dirua ateratzeko baino ez zuen erabiltzen jendea. Eta horretan arrakasta zuen. Uzta eta ondasunen gaineko hipoteka maileguak, zerrategi bat, dirua banketxean...; inguru haietako andrerik aberatsena zen. Diputatu bat bezain aberatsa izango zen bere akats bakar handiagatik izan ez balitz, alegia, auzitara eta epaitegietara jotzeko halako grina izan ez balu. Auzi luze eta garratzetan sartzen zen edozein huskeriagatik. Hala zioten, Miss Ameliak errepidean harri batekin estropezu eginez gero ingurura begiratzen zuela instintiboki, auzitara eramateko moduko zerbaite ikusten ote zuen. Auzi kontu horiek alde batera utzita, bizimodu normala egiten zuen, eta egun bakoitza bezperakoaren antzekoa zen harentzat. Hamar eguneko ezkonaldia kenduta, ezerk ez zuen hori aldatu Miss Ameliak hogeita hamar urte bete zituen urteko udaberrira arte.

Gauerdi aldera izan zen apirileko egun goxo, baketsu batean. Zeruak zingira-lirio urdin baten kolorea zeukan, ilargia argi eta distiratsu zegoen. Uzta ona espero zen udaberri hartan eta kotoi fabrika gauetz ere aritu zen aurreko asteetan. Erreka ondoan adreiluzko fabrika koadratua hori-hori ageri zen argi guztiak piztuta, eta ehungailuen burrunba motel, etengabea entzuten zen. Aproposak izaten dira halako gauak bere maiteagana doan beltzaren kanta geldoa entzuteko urrutian, soro ilunetan barrena. Edota lasai eseri

eta gitarra bat hartzeko, edo besterik gabe egonean egoteko, ezertan pentsatu gabe. Kanean arimarik ez zebilen gau hartan, baina Miss Ameliaren denda argituta zegoen eta atariko portxean bost lagun zeuden. Stumpy MacPhail zen haietariko bat, kapataz musugorri bat, purpura koloreko esku finekin. Goiko eskailera-mailan galtza petodunez jantzitako bi mutil zeuden, Rainey bikiak, biak luzangak eta makalak, ile zuri eta begi berde lotiekin. Beste gizona Henry Macy zen, pertsona herabea eta izutia, manera gozo eta imintzio urdurikoa, beheko mailaren ertzean eserita zegoena. Miss Amelia bera zutik zegoen, ate irekiaren alboan bermaturik, hankak gurutzatuta bere zingirako botatzar haiekin, nonbaitetik ateratako soka bati korapiloak askatzen pazientzia guztiaz. Denbora puska bat zeramatan hitzik egin gabe.

Bikietako bat kale hutsari begira zegoen, eta hura izan zen hitz egiten lehena.

—Zerbait dator —esan zuen.

—Nonbaitetik alde egindako txahalen bat —esan zuen anaiak.

Hurbiltzen ari zen zer edo zer hura artean urrutiegi zegoen ikusi ahal izateko. Ilargiak mertxikondoan errainu ahul, bihurriak marrazten zituen errepede bazterraren luzera guztian. Airean, loreen urrina eta udaberriko belar gozoarena ondoko urmaelaren usain bero, mingotsarekin nahasten zen.

—Ez. Norbaiten mutil koskorra da —esan zuen Stumpy MacPhailek.

Miss Ameliak isilik begiratzen zuen errepede aldera. Soka utzi, eta bere esku beltzaraneko hatz hezurtsuak petoaren tiranteekin ari ziren orain. Kopetilun zegoen, ile-xerlo beltz bat bekokian. Zain zeudela, errepede ondoko etxe bateko zakurrak uhuri basati, zakar bat hasi zuen, ahots batek isilarazi zuena. Bertatik bertara izan zuten arte, portxeko argitasun horiaren eremuan, ezin izan zuten etorritakoa garbi ikusi.

Kanpotarra zen gizona, eta arraroa da kanpotar bat ordu horretan herrian oinez azaltzea. Gainera, txalkorra zen. Luzean nekez izango zen lau oinetik gora eta beroki zarpail, maiztu bat zeraman soinean, belaunetara ozta-ozta ailegatzen zitzaiona. Bere zangotxo

okerrek meheegiak ziruditen gorputz-enbor handi, deformearen eta bizkarreko konkorraren zama garraiatzeko. Oso buru handia zuen, begiak urdinak eta oso sartuak eta ahoa txikia eta txorrotxa. Bere aurpegia goxoa eta lotsagabea zen aldi berean; azal zurbila hautsak horituta zeukan une hartan, eta itzal urdinxkak ikusten zitzaizkion begi azpian. Maleta zahar, trauskil bat zeraman, soka batez lotua.

—‘abon —esan zuen txalkorrek, arnasa falta balitzaio bezala.

Miss Ameliak eta portxeko gizonak ez zioten agurrari erantzun. Hitzik esan gabe, begira geratu zitzaizkion.

—Miss Amelia Evansen bila nabil.

Miss Ameliak kopetako ilea atzerantz bota eta kokotsa goratu zuen.

—Zer dela eta?

—Haren tartekoa naizelako —esan zuen txalkorrek.

Bikiek eta Stumpy MacPhailek Miss Ameliari begiratu zioten.

—Neu naiz —esan zuen Miss Ameliak—. Nola “tartekoa” zarela?

—Ba...

Txalkorrek larri zirudien, negarrez hasteko zorian. Eskaileraren beheko mailan pausatu zuen maleta, baina eskua heldulekutik kendu gabe.

—Nire ama Fanny Jesup zen, Cheehaw-en sortua. Orain dela hogeita hamarren bat urte joan zen handik, lehenengo senarrarekin ezkondu zenean. Askotan aditu nion bazuela Martha izeneko ahizpaorde bat. Eta gaur Cheehawen zer esango, eta Martha zure ama zela.

Miss Ameliak burua pixka bat alborantz makurtuta entzuten zion. Igandetako bazkariak ere bakarrik egiten zituen berak; bere etxea ez zen inoiz senitartekoz gainezka egoten, eta familia zuenik ez zuen inoiz aipatzen. Lehen bazuen izeba zahar bat, zaldiak alokatzeko ukuiluaren jabea Cheehawen, baina izeba hura hila zen. Hartaz gain lehengusu propio bat besterik ez zuen, hogeit mila-hera zegoen herri batean bizi zena, baina lehengusu hura eta Miss Amelia ez ziren ongi konpontzen, eta inoiz gurutzatzen baziren tu egiten zuten bide bazterrera. Beste batzuk ere saiatu izan ziren,

tarteka, Miss Ameliarekiko nolabaiteko ahaidetasuna frogatzen, baina inolako arrakastarik gabe.

Txalkorrek sekulako erretolika hasi zuen, portxeko entzuleentzat ezezagunak ziren izenak eta tokiak aipatuz, gaiarekin zerikusirik gabeak itxuraz.

—Hortaz, Fanny eta Martha Jesup ahizpaordeak ziren. Eta ni Fannyren hirugarren gizonaren semea naizenez, horrek esan nahi du zu eta biok...

Makurtu eta maleta askatzen hasi zen. Bere eskuak txolarre baten hankatxo zikinak bezalakoak ziren, eta dar-dar egiten zioten. Maleta era guztietako trastez beteta zegoen: arropa zarpailak eta halako txatar puska batzuk, josteko makina baten zatiak ziruditenak, edo batere baliorik gabeko beste zerbaite. Ondasun haien artean arakatu, eta argazki zahar bat atera zuen txalkorrek.

—Begira, amaren eta haren ahizpaordearen argazki bat.

Miss Ameliak ez zuen ezer esan. Masailezurra alde batera eta bestera mugitzen zuen astiro, eta aurpegian ezagun zuen zer ari zen pentsatzen. Stumpy MacPhailek argazkia hartu eta argitara hurbildu zuen. Bizpahiru urteko bi neska koskor zurbilen argazki higatua zen. Aurpegiak orban zuri ttipiak ziren, eta edonoren albumetik hartutako argazki zaharra izan zitekeen.

Stumpy MacPhailek ezer esan gabe itzuli zuen.

—Nondik zatoz? —galdetu zion.

Txalkorraren ahotsa zalantzatia izan zen.

—Hortik barrena ibili naiz.

Miss Ameliak hitzik egin gabe segitzen zuen. Hantxe zegoen, ate alboan bermaturik, txalkorrari begira. Henry Macyk begiak urduri kliskatu eta eskuak igurtzi zituen. Gero isil-isilik beheko eskailera-maila utzi eta ezkutatu egin zen. Gizon zintzoa da, eta txalkorraren egoerak bihotza ukitu zion. Horregatik, ez zuen gelditu nahi izan Miss Ameliak etorri berria bere jabegotik eta herritik nola uxatzen zuen ikustera. Txalkorra zutik zegoen beheko mailan, maleta irekita. Sudur-zotin bat egin, eta ahoak dar-dar egin zion. Bere kinka gaiztoaz ohartzen hasia zen beharbada. Konprenitua zuen, agian, zein penagarria zen herri hartan kanpotarra izatea,

traste zaharrez betetako maleta batekin, eta Miss Ameliarekiko ahaidetasuna frogatu nahian. Nolanahi ere, eskaileran eseri eta negarrez hasi zen bat-batean.

Ez zen eguneroko kontua txalkor ezezagun bat gauerdian dendara etorri, han eseri, eta negarrez hasia. Miss Ameliak ilea kopetatik atzeratu zuen, eta gizonak elkarri begiratu zioten deseroso. Inguru guztian ez zen txintik aditzen.

Azkenean bikietako batek esan zuen:

—Bertan hilko ahal naiz, ez bada hau Morris Finestein peto-pettoa!

Baiezkoa egin eta bat etorri ziren denak, halako esanahi berezi bat duen esaera baita hori. Baina txalkorrek orduan eta indar handiagoz ekin zion negarrari, ezin baitzuen jakin zertaz ari ziren. Urte batzuk lehenago herrian bizi izandako pertsona bat zen Morris Finestein, judu ttiki bizkor, bizi bat, 'Kristo hiltzaila' deituz gero negarrez hasten zena, eta ogi legamiagabea eta latako izokina jaten zituena egunero. Ezbeharren bat izan zuen eta Society Cityra joan zen bizitzera. Baina geroztik, gizonen bat mizkina baldin bazen nolabait, edo gizon batek negar egiten bazuen, Morris Finestein bat zela esaten zuten.

—Zera, atsekabetuta dago —esan zuen Stumpy MacPhailek—. Arrazoren bat izango du.

Miss Ameliak portxea zeharkatu zuen bi pausokada geldo, makalekin. Mailak jaitsi eta kanpotarrari so geratu zen pentsakor. Kontu handiz, hatz erakusle beltzaranaz, bizkarreko konkorra ukitu zion. Negarrez segitzen zuen txalkorrek, baina lasaiago zegoen orain. Gaua isila zen eta ilargiak argi leun, garbi batez distiritzen jarraitzen zuen; freskatzen ari zuen. Orduan Miss Ameliak gauza harrigarri bat egin zuen: galtzen atzeko poltsikotik botila bat atera eta, muturra esku-barrenaz garbitu ondoren, txalkorrari pasatu zion edateko. Miss Amelia gutxitan konbentzitzen zuten bere likorea kredituan saltzeko, eta tanta bat doan ematea ia inoiz ikusi gabeko gauza zen.

—Edan —esan zuen—. Barrena suspertuko dizu.

Txalkorrek negarrak utzi, ezpain inguruko malkoak txukun-  
txukun miatzatu, eta esandakoa egin zuen. Bukatu zuenean, Miss  
Ameliak trago luze bat hartu, harekin ahoa gozatu eta garbitu, eta  
bota egin zuen. Gero edan egin zuen berak ere. Bikiiek eta kapa-  
tazak beren botilak zeuzkaten, behar bezala ordainduta.

—Gozoa, likorea —esan zuen Stumpy MacPhailek—. Miss  
Amelia, aparta ateratzen zaizu beti.

Gau hartan edan zuten whiskia (bi botila handi) garrantzitsua  
da. Bestela, zaila litzateke gero etorri zena esplikatzea. Hura gabe,  
kaferik ere ez zen izango beharbada. Zeren Miss Ameliaren likoreak  
bere-berezko ezaugarriak baititu. Garbia eta bizia da mihian, baina  
behin irentsi eta gero denbora luzez berotzen du gizonaren barrena.  
Eta hori ez da dena. Gauza jakina da paper batean limoi zukuz  
mezu bat idatziz gero ez dela aztarnarik geratzen. Baina papera  
une batez sutara hurbilduz gero, orduan letrek gaztaina kolorea  
hartzen dute eta esanahia garbi geratzen da. Egin kontu whiskia  
sua dela, eta mezua gizonaren ariman baino ezagutzen ez den hori:  
ondo ulertuko da hartara Miss Ameliaren likorearen balioa. Kon-  
turatu gabe gertatu diren gauzak, buruaren atze-atzeko ilunpean  
gordeta egondako pentsamenduak, ezagutu eta konprenitu egiten  
dira bat-batean. Irule bat, ehungailua, zianbrera, ohea eta oster  
ehungailua beste konturik izan ez duena buruan...; irule horrek  
pixka bat edan, igandean, eta zingira-lirio batekin egiten du topo.  
Eta lore hori eskuan hartu, urrezko kaliza delikatua aztertuz, eta  
oinazea bezain bizia den gozotasun bat ernetzen da bat-batean  
haren baitan. Ehule batek gora begiratu, eta urtarrileko zeruaren  
gauerdiko distira hotz, espektrala ikusten du aurreneko aldiz, eta  
bere txikitasunak eragindako ikara sakonak bere bihotza paralizatzen  
du. Halakoxe gauzak gertatzen dira gizon batek Miss Ameliaren  
likorea edan duenean. Sufritu egin dezake, edo bozkarioz ahitu,  
baina esperientziak egia erakutsi du; arima berotu dio, eta han  
ezkutatutako mezua ikusi du.

\*\*\*